



**Elena Roseras Carcedo**

Artium Museoko Liburutegiaren eta Dokumentazioaren arduraduna

Geografia eta Historiako lizentzia (Euskal Herriko Unibertsitatea), Dokumentazioko lizentzia ( UOC, Universitat Oberta de Catalunya), Bibliotekonomiako masterra (UPV-EHU) eta Informazioaren eta Ezagutzaren Gizarteko masterra (UOC).

Hainbat erakundetan lan egin du, hala nola Sancho el Sabio Fundazioan eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburu eta Liburutegi Zerbitzuan.

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko, Artium Museoko, Liburutegiaren eta Dokumentazio Zentroaren arduraduna da 2001. urtetik. Artium Museoko lantaldeko kide gisa, Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak biurteko ekimena koordinatzen dihardu 2002az geroztik. ALIADA ikerketa-proiektuaren zuzendari teknikoa izan da Museoan; Europako Batzordearen Zazpigarren Esparru Programak finantzaturako proiektua da, memoria-erakundeen, liburutegi eta museoen kudeaketa-sistemen hornitzaileen eta web semantikoaren teknologiako adituen diziplinarteko talde batek osaturako partzuergoak sustatua.

ALDEE Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko kidea izan da 2013-2018 bitartean, eta FESABID Artxibistika, Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Museistikako Elkartearen Espainiako Federazioaren Batzordekoa, 2014-2018 bitartean.

Berrikuntzaren kudeaketarekin eta informazio- eta dokumentazio-zerbitzuekin loturiko argitalpenak koordinatu ditu. Zenbait artikulu argitaratu ditu argitalpen espezializatuetan eta hizlari gisa aritu da zenbait biltzar nazional nahiz nazioartekotan.

#### **Artium Museoaren funts dokumentalerako sarbidea eta haren ezagutza**

Artium Museoak praktika artistikoei loturiko artxiboak garatzeko eta inplementatzeko konpromiso argia du, eskuragarri dagoen informazioa bateratu, sistematizatu, osatu eta aberasteari begira. Ekimen honen xedea da XX. eta XXI. mendeetan Euskadin garaturako praktika artistikoen ulermena erraztea eta horiek testuinguruan kokatzen laguntzea.

Museoa memoria ikertzeko eta zaintzeko gauzatzen ari den proiektuaren esparruan, museoaren artxiboaren konfigurazioan funtsezko pieza gisa ageri da Nestor Basterretxearen (Bermeo, 1924 – Hondarribia, 2014) dokumentu-ondarea, haren familiak dohaintzan emana.

Basterretxearen jaiotzaren mendeurrena dela-eta, museoak hainbat ekimen antolatu ditu; hala nola bere ibilbideari buruzko webgunea, denbora-lerro biografikoa, bibliografia osoa eta haren lanak geolokalizatzeko web-baliabide bat. Gainera, Basterretxearen irudiari buruzko erakusketa dokumental bat programatu du, haren idazki, argazki, gutun, zinema- eta herri-lanetako proiektu, liburuxka eta artikuluetan oinarritua.

Aldi berean, Juncal Ballestínen artxiboko materialen parte bat –Anesvad Fundazioak dohaintzan emana– biltzen duen argitalpen-proiektu bat garatu da. Argitalpen horrek agerian uzten du artisten artxiboak zaintzea eta aztertzea zein garrantzizkoa den praktika artistikoaren bilakaera indibiduala ulertzeko, mugimendu kulturalak testuinguruan kokatzeko eta arte garaikideari buruzko diskurtso kritikoari laguntzeko.

Bestalde, AMICUS Librisuite liburutegi-kudeaketako sistema integratua kode irekiko Koha programara migratzeko lanak egin dira. Prozesu horretan, migrazio-, parametrizazio- eta produkzio-faseak deskribatu eta dokumentatu behar izan dira.